

# Balorezko Proposamena

Merkatura jada botata dugun ekimen berria da. Duela urte batzuk garraioari buruz egin genuen inkesta batean bezeroak gasolinaren prezioaz eta haren kontsumoaz kezkatzen zirela ohartaratu ginen. Orretarako soluzio berritzaile batekin etorri ginen, hasieran auto hibridoen teknologia ikertzea pentsatu genuen baina segituan konturatu ginen ez zela bidezkoa, izan ere, merkaturak hartuta zegoelako eta oso zaila izango baitzen beste enpresetatik nabarmentzea.

Horregatik oraindik ustiatu gabe zegoen proiektu berriari ekin egin genion. Guk bezeroari proposatzen dioguna bere autoen parrillan aire konpresore bat instalatzea da, kotxea martxan dagoenean aire barrura sartuko da, ondorioz kanalizazio batzuen bidez aire hau konprimitu egingo da ondorioz aire presioa karburagailuan sartuz. Honen bidez kotxearen autonomia askoz ere hobea izango da. Deposito berberarekin gutxiago kontsumituko da eta honela kilometro gehiago egiteko aukera izango dugu.

Produktuari eman diogun balioa kualitatiboa izan da. Konpresorearen diseinua denbora handia eraman digu diseinatzeko, izan ere, auto askotan ez dago leku gehiegi honelako aparatuek jartzeko. Bestalde prezioari dagokienez merke saltzea saiatuko gara merkaturan ahalik eta gehien dibertsifikatzeko.

Lehiakideengandik bereizgarriak garela usten dugu, merkaturan gu gara gauden bakarrak ez dugu oraindik inolako konpetidorerik eta honek estatus bat mantentzea ahalbidetzen gaitu berritasuna eginez. Bestalde produktuaren eskuragarritasuna errazago egin dugu orain internetetik egiten ditugulako konpresorearen bidalketak edonork eskuragarri izan dezan prezio merke batean. Bukatzeko esan beharra dut gure bezeroarengandik ahalik eta hurbilen egoten saiatzen gara beraien arazoei soluzioa bilatuz eta edozeren gainetik bezeroak zainduz.